

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

323/2015 Foru Agindua, abuztuaren 24koa, behin betiko onartzen duena, baldintza batzuekin, Iruña Okako Arau Subsidiarioak aldatzeko espedientea, hain zuzen, udalerriko saneamendu sistema orokorra eta San José de los Llanos industrialdeko 2. sektorea hornitzeko sistema sortzeari buruzkoa

AURREKARIAK

Lehenengoa. Iruña Okako Udalak, 2013ko urriaren 9ko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa puntual bati. Aldaketa hori udalerriko saneamendu sistema orokorra eta San José de los Llanos industrialdeko 2. sektorea hornitzeko sortzeari buruzkoa zen. Gainera, aldaketa hori jendaurrean 45 egun baliodunez erakustea erabaki zuen. Horretarako, iragarkiak sartu ziren ALHAOn (140. zenbakian, 2013ko abenduaren 9koan) eta egun bereko "El Correo" egunkarian, eta udalerrira osatzen duten administrazio batzarrei jakinarazi zitzaizkien.

Bigarrena. Jendaurrean egon zen bitartean ez zenez alegaziorik aurkeztu, udalbatzak, 2014ko irailaren 10eko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Arabako Hirigintza Planeamenduko Atalaren azaroaren 18ko 7/2014 bilkuran, espedientearen aldeko txostena egin zuen.

Laugarrena. Aipatutako arau subsidiarioak aldatzeak lurzoru urbanizaezinari eragiten dienez, ingurumen ebaluazio estrategikoaren espedientea izapidetu da AFAko Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuan. Era berean, zerbitzu horrek 2013ko maiatzaren 22an erreferentziako dokumentua egin zuen eta, 2014ko apirilaren 9an, kasuan kasuko ingurumen memoria.

Bosgarrena. Iruña Okako Udalak espedientea bidali zuen behin betiko onartua izan zedin. Espediente horrek 2014ko abenduaren 16an izan zuen sarrera Aldundiaren erregistroan.

Seigarrena. 2015eko otsailaren 12ko irteera datarekin, udalari idazki bat igorri zitzaion adierazteko espedientea aztertu ondoren eta dagokion txostena egin baino lehen dokumentu batzuk aurkeztu behar dituela. Dokumentu horiek AFAko Erregistro Orokorrean aurkeztu ziren 2015eko ekainaren 15ean.

OINARRIAK

Lehenengoa. Araba Garapen Agentzia SA da Iruña Okako arau subsidiarioen aldaketa puntual honen sustatzailea. Era berean, San José de los Llanos industrialdeko 2. sektorearen hirigintza garapenaren sozietate jabea eta sustatzailea ere bada, Arabako Foru Aldundiak, Ingurumen Sailaren bidez, eta Iruña Okako Ur Patzuergoak, Araba Garapen Agentziak, Iruña Okako Udalak eta Langraiz Okako Administrazio Batzarrak 2010eko uztailaren 15ean saneamenduko hodi biltzaileei buruz sinatu zuten lankidetzaren hitzarmenari jarraituz.

Espediente honek bi helburu ditu:

1. Batetik, arau subsidiarioetan oinarritzeko egituren eta zerbitzuen sistema orokor gisa sartzea eskualdeko saneamendu sistema berria; horretatik zati bat jadanik eginda dago.

Ildo horretatik, Iruña Okako udalerrira burutzen ari da hondakin uren tratamenduko sistema berria. Oinarritzeko sistema hori gauzatzeko, 3 hodi biltzaile egin dira, udalerriko herrien eta bere

industrialdeen, hala nola, Subillabide eta San Jose de los Llanosen, isuriak Langraiz Okako hegomendebaldean dagoen eskualdeko HUA berriraino eramateko.

2. Eta, bestalde, San Jose de los Llanos industrialdeko 2. sektorea urez hornitzeko sarearen trazadura berria proposatzea, Langraiz Okara sartzeko A-2622 errepidetik igarotzen den saretik hasiko dena, Zadorra ibai gaineko zubiaren inguruan. Horren xedea da etorkizunean industrialdean kokatzen diren eraikinek eskatzen dituzten hornidura beharrei erantzuteko zerbitzu bat ematea industrialde horretan. Dena den, San José de los Llanos industrialdearen bi sektoreak erabat finkatu arte, esku artean dugu aukera da zerbitzu honi lotzea industrialdeko 1. sektoretik igarotzen den hornidura sarearen bidez.

Bigarrena. Horretarako, dokumentuak egin nahi diren esku hartzeen egiturazko izaeran izango den aldaketa hau arrazoitzen du (2/2006 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru eta hirigintzarena, 54.c artikulua), bai eta, horren ondorioz, planeamenduan sartzea planeamendu orokorrean aldaketak eginda, gure kasuan, arau subsidiarioetan.

Hirugarrena. Hona hemen azpiegituretarako proposamenaren deskribapen zehatza:

1. Udaleko saneamendu sarea, Langraiz Okako herrigunearen hegomendebaldean dagoen eskualdeko HUAk eta han elkartzen diren ondorengo hodi biltzaile hauen hiru trazadurak osatua: Olabarri herrigunetik datorrena, Subillabide industrialdeko eta Langraiz Okako herriguneko saneamendu saretik datorrena eta San José de los Llanos industrialdeko saneamendu saretik datorrena.

2. San José de los Llanos industrialdeko 2. sektorea urez hornitzeko sarea: proiektuan jaso den ur hornidurarako trazadurak itxuratzen du, udalaren kirol instalazioen inguruan Subillabideko industrialdea hornitzeko dagoen hoditeriari lotuta, sektorearen eremutik kanpo 1.440 metro inguruko luzera duen hodi baten bidez.

Esan behar da aipatu diren azpiegituretako batzuk jadanik eginda daudela, zehazki, ondorengo hauek: eskualdeko araztegia, Langraiz Okako herriguneko saneamendu sarea eta San Jose de los Llanos industrialdeko saneamendu saretik datorren hodi biltzailea aipatu den eskualdeko HUAri lotzen zaion tokiraino; beraz, legezkatzeaz hitz egin beharko litzateke.

espedientearen dokumentazioaren artean ingurumen jasangarritasunari buruzko txostena dago, non zehatz-mehatz adierazten diren zein aukera hartzen diren kontuan oraindik egin gabe dauden hornidura eta saneamendu sareetarako, hau da, San Jose de los Llanos industrialdeko 2. sektorea hornitzeko eta Subillabideko industrialdeko (Langraizko herrigunetik datozen urak biltzen dituen ponpaketa putzuarekin lotunea dagoen lekuraino) eta Olabarriko saneamendu sareetarako.

Laugarrena. Sare hauek egitea bideragarri izateko, indarreko hirigintza araudiaren 184. artikulua "Oinarrizko azpiegituren eta zerbitzuen sistema orokorra" aldatzen da; zehazki, 4. puntu berri bat eranstean zaio, "Udaleko saneamendu sistema orokorra eta San Jose de los Llanos industrialdeko 2. sektorea urez hornitzeko sistema orokorra" izenburukoa. Puntu horretan azpiegitura horien eragin eremuak definitzen dira, bai eta horien erabilera erregimena, proiektuetarako eta garapen planetarako baldintzak, eta horiek egiteko hartu behar diren neurriak ere. Era berean, indarreko arau subsidiarioetan egitura antolamenduari buruzko –kalifikazio orokorra 4 plano aldatzen dira, legendan zehazturiko oinarrizko azpiegitura eta zerbitzu moten artean kasuan kasuko planoak eta azpiegitura berriak sartuta; plano horietan trazadura eta azpiegituren kokapena adierazi behar da. Azkenik, antolamendu xehatuko beste plano batzuk eranstean dira, behin betiko okupazioari, zortasunei eta behin-behineko okupazioari buruzkoak, jabeak nortzuk diren adierazita.

Bosgarrena. Arau subsidiarioak aldatzeak, batetik, erantzuten dionez oinarrizko azpiegituren arloan udalerrian dauden beharrei eta, zehatzago, Langraiz Okako eta Olabarriko herrigunetako eta Subillabideko eta San Jose de los Llanoseko industrialdeetako uren saneamenduaren eta arazketaren arlokoei, eta, bestetik, azken industrialde hori urez hornitzea bermatzen duenez, ez dago inolako eragozpenik onartua izateko.

Dena den, Iruña Oka udalerriko hirigintza planeamenduaren eta legeria aplikagarriaren arabera agiria azterturik, zuzendu beharreko zenbait kontu antzeman dira, ondoko atal hauetan zehazten direnak, hain zuzen:

– Txosten teknikoan Lurzoruaren Legearen testu bateratuak 15.4 artikuluan eta 105/2008 Dekretuak, lurzoruarena eta hirigintzaren euskal legea garatzeko presako neurrienak, 31.1.f) artikuluan eskatzen duten “jasangarritasun ekonomikoari buruzko memoria” sartu behar da.

– Arau Subsidiarioen “Ekonomia eta finantza bideragarritasunari buruzko azterlana”ri gehitzea aldaketa honetan sortutako sistema orokorren kudeaketa eta kalkulu ekonomikoen aurreikuspenak, nolabait, sistema orokor horiek benetan egitearen bideragarritasun ekonomiko bermatze aldera (hau da: haien zenbatekoa, inbertsio horiek zein jarduketa eta/edo aurrekonturen lepotik egingo diren eta abar).

– Agiri teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, agiri guztiak aurkeztuko dira, “jasangarritasun ekonomikoaren memoria” eta “Bideragarritasun ekonomiko-finantzieroaren azterlana”ren zuzenketa barne, fitxategi editaezinetan (*.pdf luzapena) zein fitxategi editagarrietan (zehazki, planoak *.dwg formatuko fitxategietan -arkatzen fitxategia erantsi behar da, *.ctb formatukoa edo *.shape fitxategietan, eta testua *.doc fitxategietan).

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa. Behin betiko onartzea Iruña Okako Arau Subsidiarioak aldatzeko espedientea, hain zuzen, udalerriko saneamendu sistema orokorra eta San José de los Llanos industrialdeko 2. sektorea hornitzeko sistema sortzeari buruzkoa.

1. Aldaketaren txosten teknikoan sartzea “jasangarritasun ekonomikoari buruzko memoria”, Lurzoruaren Legearen testu bateratuak 15.4 artikuluan eta 105/2008 Dekretuak, lurzoruarena eta hirigintzaren euskal legea garatzeko presako neurrienak, 31.1.f) artikuluan eskatzen dutena.

2. Arau Subsidiarioen “Ekonomia eta finantza bideragarritasunari buruzko azterlana”ri gehitzea aldaketa honetan sortutako sistema orokorren kudeaketa eta kalkulu ekonomikoen aurreikuspenak, nolabait, sistema orokor horiek benetan egitearen bideragarritasun ekonomiko bermatze aldera (hau da: haien zenbatekoa, inbertsio horiek zein jarduketa eta/edo aurrekonturen lepotik egingo diren eta abar).

3. Agiri teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, agiri guztiak aurkeztuko dira, “Jasangarritasun ekonomikoaren memoria” eta “Bideragarritasun ekonomiko-finantzieroaren azterlana”ren zuzenketa barne, fitxategi editaezinetan (*.pdf luzapena) zein fitxategi editagarrietan (zehazki, planoak *.dwg formatuko fitxategietan -arkatzen fitxategia erantsi behar da, *.ctb formatukoa edo *.shape fitxategietan, eta testua *.doc fitxategietan).

Bigarrena. Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espedientea foru aldundiari igorriko zaio, berriro ere jendaurrean jarri beharrik gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2015eko abuztuaren 24a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSE ANTONIO GALERA CARRILLO